

Lost in Translation

Itzulpen transkulturala eta jakintzaren deskolonizazioa

Encarnación:

Hemen bizi diren espainiarrek ez dute 1990eko hamarkadaz geroztik arrazakeria hori jasaten, baina garai hartan (1970eko hamarkadaz ari naiz): «A, atzerritarren alaba zara, usain txarra duzu, baratxuri usaina duzu, eta irain egiten gintuzten beti, irakasle batzuek arbuia egiten ziguten alemaneraz hitz egiten ez genuelako, hau da, arrazakeria moduko bat bazegoen... eta horrek helduaroraino markatzen zaitu. Zeren herrialde batean bizi baitzara eta nahiago zenuke hor ez egotea, gurasoekin baitzaude eta hori desberdina da, ez baitzara gizarteko partaide eta lehen (Espainian) bai, lehen gizarteko partaide zinen».

Carla:

Barkatu, norberaren herrialdean ere horixe bera gertatzen da, beste kultura bat badugu, gauza bera gertatzen da, niri ere gertatu zait eta. Ni beste kultura batekoa naiz, eta nik beste hizkuntza bat hitz egiten nuen. Amak beste hizkuntza bat hitz egiten zuen, eta nik ere bere hizkuntza hitz egiten nuen. Eskolan hasi nintzenean, amaren hizkuntza hitz egiten nuen, eta eskolan, sei urterekin, gaztelaniaz ikasi nuen, nik ez bainekien gaztelaniaz; baina, esan dizudan bezala, hori ez da gertatzen herrialdea beste bat delako, askotan norberaren herrialdean bertan ere gertatzen da eta.

Dani:

Latinoamerikan, orokorrean, horixe gertatzen da, oso ageriko arrazakeria dago indigenen aurka eta beltzen aurka.

Encarnación:

Bai, Espainian ere, frankismoaren garaian, euskalduna edo katalana izanez gero, ezin zenituen hizkuntza horiek hitz egin eta gaztelania ikasi behar zenuen.

Carla:

Eta gure herrialdean esaten zen bezala: zu zuria zara. Baina, *indiarra* baldin bazara: *emakume indiarra* baldin bazara, kirasduna eta hori guztia, eta neska baldin bazara, horrek markatu egiten zaitu, eta ni ere markatu egin nau gaur egunera arte.

Lost in Translation: izenburu hori jar geniezaioke elkarriketari. Bizi-baldintzen artean itzulpena egiteko ezintasuna erakusten digu, baldintza horiek, aldi berean, elkarren arteko loturak izan arren. Hau idatzi du Gayatri Chakravorty Spivakek: «Ez dago berez hitz egitea den hizketarik, baldin eta inork aditzen ez badu. Erantzuteko-hitz-egite hori itzulpenaren agindu gisa defini genezake [...]. Alabaina, gizakien arteko funtsezko itzulpena bestearen normaltasunean gertatzen dena kontuz eta egonarriz aditzea da, eta horrek balio digu, hain zuzen ere, besteak ahalegin hori jadanik egin duela ohartzeko».

Spivakek adierazi duen bezala, itzulpenaren agindua sortzen da «isiltasunak» ezarritako espazio batean aditzeko ahalegina egiten denean. Hala eta guztiz ere, banakako ekintza bakar batek ez du espazio horretan ezarritako «isiltasuna» eteten. Adierazpen horren bitartez, Spivakek agerian jartzen du egiturazko une bat, hainbat jarrera geopolitikoren arteko topaketan sortzen dena. Dilema baten aurrean gaude; elementu partekatutako zehazteko ahalegina egitean, gainditu ezineko desberdintasunak topatzen ditugu azkenean. Hala ere, desberdintasun horiek, aurkako gizarte-harremanetatik sortuak, itzuli egiten dira, metatze kapitalistaren logikaren barruan, identitatearen eta desberdintasunaren logika bitarrera. Merkaturatzearen eta kontsumoaren merkatu-logikari jarraituz, homogeneoa dena desberdina balitz bezala salduko da. Theodor Adorno eta Max Horkheimer pentsalariak antzekotasuna lortzeko desio hori desberdintasunari uko egite gisa deskribatzen dute: «Kultur industriak identifikazio inozoan murgiltzeko gonbitea egiten duen lekuan, ukatua izango da identifikazio hori berehala. Inork ezin du jadanik ihes egin. Beste garai batean, ikusleak, filmetan, bere ezkontza ikusten zuen beste batena ikustean. Orain, pantailan zorionekoak direnak ikusleen espezie bereko aleak dira, baina berdintasun horren bidez giza elementuen bereizkuntza gaindiezina ezartzen da. Antzekotasun perfektua desberdintasun absolutua da»².

Berdintasunaren eta desberdintasunaren arteko dialektika negatiboa desberdintasunaren identitate-logikaren barruan harrapatu dago. Adorno eta Horkheimer teoriariak adierazpen horiek egin zituzten Amerikako Estatu Batuetako kultur industria aztertzean, espazioaren eta denboraren koordinatuak masen hedabide berrien, mugikortasun globalaren eta migrazio transnazional edo/eta postkolonialen eraginak artean pairatu gabe zeuden garaian.

Identitatearen eta desberdintasunaren arteko loturaren tentsioa lekuz aldatu da mundu globalean gertatutako aldaketarekin batera. Zenbaitek lotura hori eteteaz hitz egiten dute, eta teoria-eredu berri baten alde agertzen dira; eredu horrek mugimendu-kurba, maila eta solaskide desberdinak ekartzen ditu berekin ugaritasunaren eta teilakapenaren barruan, erkatzearen lerrozentasunaren barruan baino areago. Aniztasuna areagotzen duen merkataritza-estrategia berri batek hartu du bere gain logika hori. Aniztasuna, hor, tokikoa denaren mailan kokatzen eta irudikatzen da. Baina, ugaritasunaren ideia transmititu arren, aniztasunaren irudikapena uztartuta dago hainbat aldaketa dituen mezu bakar batekin, aldaketek eduki bera izan arren. Stuart Hallek «Das Lokale und das Globale» artikuluan³ adierazten duen bezala, globalizazioak bi mugimendu ditu ezaugarri nagusitzat: homogeneizatzea eta bereiztea. Kultur industriaren adibideaz baliaturik –telebistarekin gertatzen den bezala–, deskribatzen du nola itxura eta edukia bateraturik geratzen diren eta nola transmititzen diren mundu osora, mezu berdina bailiran, hainbat hizkuntzatan emanda. Néstor García Canclini⁴ eta Jesús Martín Barbero⁵ egileek ere ohartarazi zuten, 1980ko hamarkadaren bukaeran, kapitalismo globalak dituen homogeneizatze joerez eta tokiko itzulgarritasunaz. García Canclini, zehazki, fluxu hori dimentsiobakarrekoea dela azpimarratu du, Mexiko eta Amerikako Estatu Batuen arteko harremanari dagokionez. Amerikako Estatu Batuetako kultur industria Mexikoko ingurunera lekualdatzean, ez ditu aintzakotzat hartu tokiko kultur antolakuntzak

eta sareak. Egia da gaztelaniako CNN, MTV latino eta beste telebista-kate batzuen bidezko hedabide-berdintasunaren barruan sartzen dela, baita ere, mugako arrantxo-musika; hala ere, trukagarria den irudiaren bidezko desberdintasun hori mantentzen du, Amerikako Estatu Batuetan merkatu-azterlanak egiten dituzten enpresek onartua. Desberdintasuna hautematearen egiantza sortzen duten hedabideetako irudiak eta informazioak homogeneizatzea balio eta arauak sortzearen funtsezko mekanismoen osagarria da kapitalismo globallean.

Joera hori aintzakotzat hartuta, zalantza sortzen zaigu zer itzulpen-kontzeptuz jardun behar dugun jakiteko orduan. Galdera hori egitea beharrezkoa da balioen eta arauen sistema unibertsalak tokikoaren mailara transmititzeko prozesua ulertu ahal izateko. Beraz, itzulpen-molde hori lotuta dago Emily Apter egileak «*corporate, global United-Nations speak*»⁶ izendatzen duenarekin: NBEko hizkuntza korporatiboa, sozializazio kapitalistaren balio unibertsalak besteei identitatea ematen dien hizkuntzaren barruan biltzen dituena. Merkatuko logika bateratua hainbat hizkuntzataraz itzuliko da, testuinguruak berezkoak dituen gramatika eta semantikatik bereizirik. Hala bada, identitate-mezuak geografia-, politika- eta historia-eduki zehatzik ez duen gune eleanitzean transmititzen dira. Desberdintasunean *beti berdina* sortze horrek polifoniar espaziorik uzten eta aurreikusten ez dion identitate-logikaren arabera funtzionatzen du. Itzultzeko ekintza horren xedea hainbat hizkuntzatan transmitituko den ideia nagusi bakarra erreproduzitzea da, gertatutako aldaketa hori ingurune jasotzaile zehatzean nabaritu ez izateko moduan. Apter egileak homogeneizatze globalaren prozesu hori eta bere hizkuntza-bitartekotza aztertzen ditu, kultur industriaren funtsezko ezaugarrietako bat bezala. Hau idatzi du:

«Eleanitzeko esapideek entzuleengan sortzen duten eraginak nolakotasun kezagarria eta bi ahokoa du: alde batetik, hizkuntza

global, korporatiboa ekartzen digu gogora –NBE mintzatzen dena bezalakoa–; hizkuntza horretan adierazten den komunikazioa testuinguruz gabetua da, eta ustez “balioetatik garbi” dagoen aldibereko itzulpen gisara transmititzen da mundura. Haatik, entzuleengan sortutako eragin horrek erakusten digu gramatikaren eta itzulpenaren gidalerroak noraino ez diren politikoki neutroak, erabiltzen diren moduaren eta lekuaren baitan daude eta»⁷.

Hizkuntza homogeneizatzearen efektu horren aurkako mugimendua, hizkuntza desberdintasunean biltzea, itzulpengintzaren ikaskuntzan dagoen «*translational transnationalism*» izeneko joera da. Joera horrek azpimarratzen du Lawrence Venutik⁸ «tokikoa denaren etika» edo Colin MacCabe⁹ «arrunta denaren adierazgarritasuna» [*the eloquence of the vulgar*] izendatzen dutena. Joeraren barnean aztertzen dira ugaritasuna bakarlean merkaturatzen denean kanpoan geratzen diren hizkuntzen arteko bitartekotzak. Eremu urriko hizkuntzak dira horiek eta estandarizatuta ez dauden hizkerak, hala nola, dialektoak, herri-hizkuntzak, kreolera, argotak edo doinuak. Halaz ere, Spivakek aditzera eman duen bezala, erresalbu soilik pentsa liteke itzulpen-proiektua erreskatatzea metatzeko molde kapitalistaren logika globalaren barruan, izan ere «inork ez du inoiz fulani edo maia-quitxe hizkuntzetara ezer itzuliko, helburu bitxiegiaren bat erdietsi nahi ezean behintzat»¹⁰.

Tokikoa denaren etika Hizkuntza eta desberdintasuna

Dani eta Carlarekin izandako topaketari dagokionez ere, itzulpen-proiektua –*tokikoa denaren etikaren* ikuspegitik– lor daiteke, bakar bakarrik, zenbait murrizpen dituela, topaketa horretan bertan agerian jarri direlako gaztelaniaren hainbat doinu eta hizkera, espainiar hizkuntzaren erregistro bakarlean berdinu ezinekoak. Doinu eta hizkera horiek gure mintzairaren jatorria islatzen dute. Nire

kasuan, «andaluzera hibrido», Latinoamerikako eta Iberiar Penintsulako doinu eta dialektoek osatuta zegoen Alemaniako gaztelaniadun komunitatean izandako bizitzak markatua. Carlaren gaztelania kitxua hizkuntzak eta Ekuadorreko iparraldean dagoen Otavaloko doinuak taxutu zuten. Era berean, Daniren gaztelania Txileko hizkerak markatuta dago. Niri gertatu zitzaidan bezala, Daniren jatorrizko dialektoek Alemanian hazitakoen inflexioak hartu dituzte. Eta gure hizkera ere gure jatorriko maila ekonomikoek eta horietatik sortzen diren kultur *habitusek* eraginda dago. Topaketa hartatik sortu zen itzulpen-proiektuaren helburua ez da komunitate unibertsala antolatzea, aitzitik, desberdintasunean hizkuntza bat aurkitzeko ahaleginaren irudikapena da. Jakina, galdera hau egin dezakegu: nola lortuko dut besteek ulertzea, oinarrian hizkuntza partekatutik ez badugu? Izan ere, hizkuntza partekatua oinarria izanda ere –hala nola gaztelania, kasu honetan–, eta hizkuntza partekatua hitz eginda ere, hizkuntza horrek desberdintasunak gordetzen ditu bere baitan, proiektu partekatua egiteko baldintzak sortzen dituztenak.

Hala, gorago deskribatu dugun egoeran, hainbat biografiak topo egiten dute batako bestearekin, eta hainbat alderdi komuni buruzko elkarrizketari lotzen zaizkio: «hizkuntza», «migrazio-esperientzia» eta «emakumea». Elkarrizketa horren bidez, partekatuak diren alderdiak osatuko dira, nahiz eta adi behatzen duen norbaitentzat gizarte-desberdintasunean sortuak izan (eta, hortaz, gizarte-bereizkuntzan).

«Traduciendo posiciones» izenburuko nire artikuluan¹, nabarmendu egin dut paradoxazko egoera zehatz bat, alegia: elementu partekatuak daudela uste izatean baina, berez, desberdintasunak agerian jartzen direnean gertatzen dena. Litekeena da esperientzia partekatuaren bidez hurbiltasuna aurkitzeko egin dudana saioak guztiz ez huts egitea; baina, hala ere, distantzia argi agertzen hasi da, Espainia frankistari buruzko nire kontakizunek erabat murriztu ezin dutena. Gorago aipatutako

artikuluari, egiaztatu egiten dut iragan kolonial eta inperial arrazistatik sortuak diren hainbat gizarte-jarreraren bidez, muga- eta migrazio-erregimen berrien bidez, *heteronormatibitatea* eta gaur egungo mundu-ordenaren bidez neure gain hartu dudana «gaztelaniadun» nortasuna zalantzan jartzen dela.

Eguneroko bizitzaren mikroespazioetan, konplexutasun historiko, politiko, sozial eta kulturalen txertaturik gaude. Komunikazioa sortu edo eten egiten da, elementu partekatua bat abiagune dugunean –gaztelania, adibidez–, balizko adostasuna inplizitu dagoelako; baina, adostasun horrek ez dakar berekin gure desberdintasunak hautematea. Posizionaltasun horiek bistaratzean nor bere burua ulertarazteko bitartekotza edo saioak ez du hizkuntza-itzulpenik edo hitzez-hitzekorik behar, itzulpenaren alderdi politiko eta kulturala bera onartzen duen itzulpena baizik, adostasunaren tresna gisa eta, aldi berean, adostasunera iristeko ezintasun gisa.

Hala bada, Carla eta Danirekin izandako elkarrizketan, hau da sortzen den galdera: Nola itzul litezke gure bizitza-egoerak, migrazioan izan ditugun esperientziak, eta zehazki nire gurasoen esperientziak, Carla eta Daniren esperientzietara?

Esperientziak itzultzea

Nire gurasoak 1962. urtean iritsi ziren Alemaniako Errepublika Federalera. Ama Sevillako hirurogei emakume gazteen talde batean iritsi zen, Frankonia Garaia barnealdean kokatuta dagoen Kirchenlamitz herri katolikora. Han, emakume greziar eta turkiarren talde handia zegoen. Bakarrik bizi ziren emakume gazte haiek orduan 2.000 bat biztanle zituen herriko bitxitasuna ziren. Aitak meatzeetan lan egiten zuen, Ruhr eskualdean. Gurasoek immigrazioan ezagutu zuten elkar eta ni Frankonia Garaiko Kirchenlamitzen sortu nintzen. Ni jaio eta gutxira, Espainiara itzuli ginen, eta bolada gorabeheratsu baten ondoren, Alemaniara bihurtu ginen 1972an, Frankfurtera.

Biografia hori da, 1960ko hamarkadan eraikitzen ari zen Europan, Espainia frankistan, 1970eko hamarkadaren bukaeran demokraziarako trantsizioan zegoen Espainian, eta Alemania postfordistan izandako esperientziak alegia, «langile atzerritarren (*Gastarbeiter*) alaba» izatetik «Europako herritar» izatera igaroarazi nauen nire bizibidea markatu duena. Estatu espainiarreko diskurtso ofizialean ez dira gurasoen esperientziak agertzen. Emigratzaileen belaunaldia ahaztua izan da¹², Espainia faxista eta inperiala gogorarazten du, Maroko espainiarra 1956. urtera arte, Ginea espainiarra 1968. urtera arte eta Sahara espainiarra 1975. urtera arte kolonia gisa mantendu zituena (Kanariar Uharteak, eta Ceuta zein Melilla lurralde espainiarrekoak dira gaur egun ere) eta, hala ere, azpigaratuta zegoena, mendebaldeko Europarekin alderatuta.

Nola itzul litezke bata bestera nire gurasoek langile atzerritar bezala bereganatutako esperientziak eta Berlinen paperik gabe bizi eta batere eskubiderik gabeko egoeran neskame-lanetan ari diren Carlaren eta Daniren esperientziak?

Dani eta Carlak ez zuten parte hartu langileak biltzeko inongo programa ofizialetan; aitzitik, Alemanian ezkutuan sartu behar izan zuten, ate ofizialak emakume horientzat itxita zeudelako, nahiz eta beren zerbitzua eta ardura behar dituzten etxeetako atek zabal-zabalik egon. Dani eta Carlak indarkeria sexista eta arrazistaz hitz egin zidaten, poliziaren indarkeriaz, horiek baitira Alemanian beren egunerokotasunaren osagarri. Hortaz, nola itzuli beren esperientzia nire gurasoen esperientziara? Nire gurasoek, Alemaniara iritsi zirenean, barraketan bizi behar izan zuten, lantegietako egoera jasanezinei aurre egin behar izan zieten, eta zailtasunak pairatu behar izan zituzten beren familia Alemaniara ekartzeko. Estatu alemaniarrak ofizialki mantentzen badu ere *Gastarbeitern* belaunaldikoek Alemanian egonaldi mugatua izan dutela, nire gurasoek Alemanian hartu dute erretiroa. Bien bitartean, Espainian aldaketa ekonomiko eta politikoak gertatu dira hirurogeiko hamarkadaz geroztik. Gaur

egun, «eragile globaletako» bat da ekonomia globalean¹³, eta era aktiboan parte hartzen du Europako Batasunean asilo eta migrazioa arautzen dituen politika murriztailea bultzatzen¹⁴. Danik Txilera itzuli behar izan zuten. Alemanian zuen bizimodua neketsua zen, eta Txilen jarraitu nahi izan zuen etxeko langileentzako lan-eskubideen eta bizileku-eskubidearen alde Alemanian hasitako borrokan. Beste emakume batzuk gaixotu egin ziren, fisikoki eta gogo-egoeraren ikuspegitik akigarria zen eta legezko lan-baldintzak eta etxebizitza bilatzea ezaugarri zuen egunerokotasunaren ondorioz.

Carla eta Danirekin izan nuen topaketak, boterearen koordinatuek erabakia du abia gure bizi-baldintzak itzultzeko saioa. Saio horren bidez, agerian jarri da, argi eta garbi, ezinezkoa dela identitate partekatua oinarritzat hartzea; eta, horren ordez, erabateko desberdintasuna azaleratu da topaketan. Lerro banatzaile sakonek, gizarte-desberdintasunez eginek, egituratzen dute gure topaketaren eremua. Aurkakoak diren bi eremu topatu dira elkarrekin eta, une batez, eremu partekatua sortu dute. Bi eremu horiek ez dira elkarrekin topatzen era automatikoan, lanaren eta gizarte-mugen bidez eratutako banaketak bereizirik daudelako. Hala bada, nola itzuli aurkakoak diren eremu horiek?

Has gaitezen nire eremuarekin: unibertsitate britainiarra eta, lehenago, unibertsitate alemaniarra. Azken zortzi urteetan, Europako unibertsitateak, eta bereziki Alemaniakoak, erreformaren prozesuetan sartu dira. Erreformak hezkuntzaren hirugarren sektorea transnacionalizatzeke prozesuaren esparruaren barruan gertatu dira, 1999ko Boloniako Adierazpenean erabaki zen bezala¹⁵. Horren bidez, ongizatearen estatuko hezkuntza-sistema merkataritza libreko merkatu bihurtu da, non hezkuntza beste salgai bat besterik ez den. Jakintza, horrela, salgai bilakatzen da, salerosketatako gai nazioarteko eremuan. Ildo horretan, Munduko Bankuak dokumentu estrategikoa

onartu zuren 1994an. Bertan, azpimarratu egin zen hezkuntzaren sektoreak ekonomia globalean duen garrantzia. Hori Dani eta Carlarekin izan nuen topaketa erabaki zuen koordinatu osagarria da.

Carlaren eremua, aldiz, migrazio-erregimenaren eta «arraza» eta «genero» aldagaiez funtzionatzen duen lan-merkatuaren indarkeriazko eraginek erabakita dago. Etxeko lanetan eta zaintze-lanetan nagusiki emakumeak aritzeak markatuta dago, eta lan-esparru horrek gizarte-balioaren gutxitzea pairatzen du. Carlak etxeko lanak egiten ditu legezko egoiliarren estatuturik gabe, eta orduko bost euro irabazten ditu. Noraino ordezkutzen gaitu biok «emakume» izendapenak?

Emakume bihurtzetik itzulpenean emakume izatera

Italian, 1980ko eta 1990eko hamarkadetan hedatu zen mugimendu feminista postfordistan, hainbat emakume teorilarik –hala nola Judith Revel, Antonella Corsani eta Sara Ongaro– eztabaidagai izan zuten lanaren feminizatzea, «emakume bihurtzeak» duen bereizgarri gisa (Ongaro¹⁶, Corsani¹⁷, Revel¹⁸, Querrien¹⁹). Judith Revelek, zehazki, «lanaren feminizatzea» kontzeptuaren bitartez, «emakume bihurtzea» ideia hedatu du. Ikuspegi horretatik, Revelek emakume izatearen ontologiari buruz hausnartzeko gonbitea egiten digu. Gilles Deleuze eta Félix Guattarik²⁰ garatutako bilakaeraren ideia joz, emakumea fluxuan bilakatzen da emakume, eta identitatearen logika bitarretik baztertzen da; «emakume» ideiak dena eta ez dena adierazten du. Emakumeen bizi-baldintzei lotuta dagoen bizimodua gogorarazten digu, baina, kualitatiboki, gizartean bizimodu orokor batekin du zerikusia, lanaren balio-gutxitzearen eta lanaren egonkortasunik ezaren moldeekin, alegia. «Emakume bihurtzea» lana feminizatzeari buruzko eztabaidaren erreferentzia-puntu bilakatzen da. Emakume bihurtze horrek bi alderdi nabarmentzen ditu, S/Convegno taldeko Tiziana Vettorek idatzi duen bezala: «emakumeen presentzia sendotua

lan-esparru guztietan, era askotako lan-kontratuak dituztela; eta emakumeen jokabidea, Deleuzeren arabera sinbolikoa denaren eta femeninoa denaren ezaugarriak –bi ezaugarriok unitate gorpuzdunak diren aldetik– izan ditzakeen produkzioaren bidez eratzen dena. Izan ere, emakumeen asmoek, desioek eta interesek produkzio-ereduak eraldatzeko arrazoi nagusietako bat osatzen dute fordismotik postfordismorako trantsizioan». Hala bada, lanaren feminizatzeak ez dauka hemen zerkusirik lanaren alderdi kuantitatiboarekin, lanaren alderdi kualitatiboarekin baizik, «subjektibotasun femeninoa» sortzen duelako²¹.

Subjektibotasun femenino hori ezegonkortutako lan-harreman berrien anbiguotasunean existitzen da²², eta emakumeengan zein, orokorrean, ordaindutako lanaren eta etxearen arteko uztardura, denboraren eta gizarte-harremanen antolaketa koordinatu nagusi gisa, pairatzen duten subjektuengan du eragina. Horregatik aurkitzen dira «lanaren feminizatzea» kontzeptuaren barruan sozializatzeko prozesu anibalente eta kontraesankorrak, eta prozesu horietan, «emakumezkoen» gaitasunak deiturikoak xurgatu egiten dira, ordainduak izan gabe, ekoizpen-prozesuen bitartez. «Subjektibotasun femenino» hori hainbat bitzta-esparrutako antolaketa- eta administrazio-esperientzietatik sortu da –hala nola, besteak zaintzea, lanbidea eta etxeko lana²³–. Esparru horietan topatzen diren eronkei aurre egiteko, beharrezkoa da subjektu malgua eta zaildua izatea. «Lanaren feminizatzeak» gizarte-harreman guztiak zehazten ditu gaur egungo metatze kapitalistaren logikaren barruan.

Halaz ere, egiazta dezakegu, benetan, diagnosi hori hierarkizatzeko eta desberdintzeko gizarte-prozesu guztietan? Ez ditugu aurrez aurre, bada, sozializatzeko eta subjektibatzeke beste molde batzuk, gure mugitzeko aukerak mugen eta migrazioen erregimen batek onartu edota suntsitzen dituela kontuan izanda?

Aipatutako lan-harremanen izaera biopolitikoak «emakume» identitate-kategoriaren bidez

izendatzeko saioa bilakaera dela ulertzen bada ere, arazotsua dela iruditzen zait. Eta ez gaur egungo esplotazio-prozesuei eta eskubideak ukatzeko prozesuari buruzko diagnosiarekin ados ez nagoelako, baizik eta, areago, harreman horretan ez delako aintzakotzat hartzen «emakume» identitate-kategoriaren itzulgarritasun beharrezkoa. Neuk egindako ikerketatik atera dudana aipatutako adibideak agerian jartzen duen bezala, «emakume» edo migrazioari buruz hitz egiten dugunean, errealitate desberdinez ari gara. Horregatik ere, «lanaren feminizatzearen» gaineko diagnosiak kokapen zehatza du geopolitikaren eta historiaren ikuspegitik; desberdintasun immanenteek markatuta dago, eta diagnosi hori beste harreman batzuetara transferitzeko, itzulpenaren beharra dugu. Hortik ondorioztatzen da gorago egindako galdera, alegia, nola itzuli nik unibertsitetearen dudana lan-egoera Dani eta Carlak etxeko langile gisa duten lan-egoerara. Zeren, emakumeak garen aldetik zaintze-lanak eta etxeko lanak esleitzeari dagokionez abiagune partekatua badugu ere, gure lan-egoerak, eta baita gure legezko estatusak ere –herritartasuna onartua izatea edo ez izatea–, gizarte-desberdintasunezko elkarbidean kokatzen baikaitu. Nire gizarte-egoera Carla eta Danirenera itzultzean, bazter geratzen da desberdintasun eta hierarkia horien pertzepzioa.

Itzulpen horren eginkizunak zerikusia du Chandra Talpade Mohantyren proiektuarekin, hau da, genero-harremanen produkzioa zein «feminitatearen» eta «maskulinitatearen» arteko giltzadurak inguru geopolitiko eta historikoan kokatzearekin²⁴. Itzultzeko saio hori, era berean, Walter Benjaminen ideiak markatuta dago²⁵; ideia horren arabera, itzulpen ona ez da jatorrizkoaren ideia erreproduzitzen duena eta, ondorioz, jatorrizkoaren kopia sortzen duena, jatorrizkoaren itzulpenean gertatutako hutsegiteren batetik sortzen dena baizik. «Emakume» itzultzeko orduan, hau esanenez: itzulpen horrek bere baitan ditu «emakume bihurtzearen» aztarnak, baina ez jatorrizkoan ez kopian aurkitzen ez den zerbait berrira bidaltzen gaitu. Berrira den hori

Derridak soberakin gisa pentsatzen duena da. Derridak *gehigarri* izendatzen du. Gehigarria, hizkuntza antzemangarri edo berdinarean barruan ez dagoenez, ezin da ulergarri bihurtu hirugarren kontzeptua sortzean: «[...] gehigarria ez da ez gehiago ez gutxiago, ez kanpoa ez barnearen osagarria, ez akzidente, ezta zerizana ere»²⁶.

Itzulpen baten hutsegitean, hots, aurkakoen itzulezintasunean, aurkitzen den soberakin hori uler liteke, Alberto Moreirasen arabera, «transkulturalitate intrantsigente» gisa.

Transkulturalitate intrantsigentea

*Transkulturalitate intrantsigente*arekin, itzulpenaren proiektuak jatorrizkoak eta kopiak eratzen duten logika bitarra baztertzen du. Hala bada, itzultzailearen jardura hasten da, Gayatri Chakravorty Spivaken iritziz, ulergarritasunaren mugak ageriko bilakatzen diren unean. Spivaken aburuz, itzulpena gure identitatearen mugetatik ahalik eta hurbilenera iristeko bide bat da. Egileak era honetan deskribatzen du itzulpenaren izaera konbentzigarria: «[...] geure identitatearen mugaldean mugitzeko era bat –identitatea azalpenezko prosaren ekoizpen gisa ulertuta– norbaiten lekuan lan egingo bagenu bezala mugitzea da, askoz ere jende gehiagorena den hizkuntza batekin lan egingo bagenu bezala. Hori da, azken buruan, liluratzen gaituen itzulpengintzaren alderdi bat. Besteak norberaren identitatean utzitako aztarnaren aurrean sentitzen dugun erantzukizunaren mimika hutsa da»²⁷.

Gorago deskribatu dudana eszena transkulturalitate intrantsigentearen adibide adierazgarria da, eta elementu hau du ezaugarri: elkarrekin komunikatu arren, gauza desberdinez ari garela. Ordea, agerian jartzen ditu «emakume migratzaileak» izanik migrazioaren eta «lanaren feminizatzearen» ingurune argitzaile unibertsalaren adostasunean elkartzeko aurkakotasuna eta erresistentzia. Transkulturalitate intrantsigentearen espazioa gure eguneroko

bitzita erabakitzen duten eta bilakaeraren edo exodoaren ihes-lerroetan desagertzen ez diren kontraesanen zurruntasunaren bidez sortzen da. Itzulgarritasunaren mugetara bidaltzen gaitu. Hala eta guztiz ere, transkulturalitatearen espazio hori, aldi berean, topaketaren bidez sortzen da, espazio bat partekatzen duten bizi-baldintzak elkartuta, nahiz eta espazio hori ez partekatu bizitzeko eta esperimendatzeko orduan. Transkulturalitatea alde batetik intimitatea eta bestaldetik distantzia bereizgarri dituen *konbivialitatearen* espazioa da.

Hori Europako ingurunea aldatuz gero, *transkulturalitate intrantsigentearen* proiektua *Europa probintzializatze*ko ahalegin bezala uler genezake. Proiektu horren abiagunea itzulpen-proiektuaren paradoxa da, hemen deskribatu duguna. Egia da, halere, arreta jarri behar dugula historiaren, semantikaren eta lurraldeen alorretan dauden desberdintasunetan, horietan kontzeptuek beren kokapena dute eta (hala nola, transkulturazioa Latinoamerikan); baina, kontzeptu horien potentzialtasun analitikoak erabil genezake botere-harremanak ez ezik, harreman horiek Europako gizartearen diagnostikoa egiteko duten kultur eraginkortasuna ere ulertzeko. *Itzulpen transkulturalaren* proiektuak hegemonia aztertzearen interesa du. Kultur teoriaren tradizio (post)marxistan oinarrituta dago, non kultura ulertzen baita ekoizteko baldintzen adierazpen gisa. Hala eta guztiz ere, ez du kultura aldi berean ekonomiaren logika bihurtzen; aitzitik, kulturaren izaera transzendente eta eraldatzailea arakutzen du eta. Hortaz, transkulturalitateaz hausnartzera bultzatzen gaitu, kulturaren materialtasunaz eta ekoizpen-moduen eta horien bitartekotza bereizgarrien taxuketaz.

Itzultzeak, *transkulturalitate intrantsigentearen* ingurunean, zerikusia du gizarte-borrokaren originaltasunaren eta hori erakundean itzultzearen arteko bitartekotzarekin. Beraz, itzulpen transkulturalaren proiektu deskolonizatzailearen helburua egitasmo politiko bat monopolizatze, erlatibizatze eta berdintze proiektuak saihestu ahal izatea da. Ildo horretan, «itzulpen transkulturala»

estrategia berria balitz bezala ulertu nahi nuke, hemendik aurrera esku hartzeko eta jakintza eraldatzen laguntzeko estrategia bezala, alegia. Horrela bada, Marta Malok²⁸ egin dituen galderak abiagune hartzeko saioa da, hau da: «[...] nola hautsi ideologiaren iragazgailuak eta jarauntsitako inguruneak; nola sortu bizitza-lurraldearen eta lankidetzaren lurralde zehatzaren analitiko eta ezinegon- eta asaldura-esperientzietatik zuzenean edaten duen jakintza; nola abiarazi ezagutza hori gizartea eraldatzeko; nola bihurtu eraginkor gure sareetan dabilen jakintza; jakintza horiek nola sustatu eta jardunean antolatu... azken buruan, nola bereizi gure buru-ahalmenak, gure adimena, lan-dinamiketarik, irabaziak edo/eta gobernagarritasuna sortzeko dinamiketarik, eta nola uztartu horiek ekintza kolektiboarekin (iraultzaile eta eraldatzaileak baita) eta nola bideratu gertaera sortzailearekin elkar daitezen»²⁹.

- 1 Spivak, Gayatri Chakravorty, «Translation as Culture», *Parallax*, 6. lib., 1 zk, 2000, or.: 13-24.
 - 2 Horkheimer, Max; Adorno, Theodor W. «Kulturindustrie», *Dialektik der Aufklärung*, Frankfurt, Fischer, 1988, 154 . or. [gaztelaniazko argit.: *Dialéctica de la ilustración*. Madrid:Trotta, 2006].
 - 3 Hall, Stuart, «Das Lokale und das Globale: Globalisierung und Ethnizität», *Rassismus und kulturelle Identität*. Hamburg: Argument Verlag, 1994 [gaztelaniazko argit., «Lo local y lo global: globalización y etnicidad», Pablo Sendónen itzulpena, → www.cholonautas.edu.pe/modulo/upload/S%20Hall.pdf
 - 4 García Canclini, Néstor, *Culturas híbridas. Estrategias para entrar y salir de la modernidad*, México D. F.: Grijalbo, 1990.
 - 5 Martín Barbero, Jesús, *De los medios a las mediaciones: comunicación, cultura y hegemonía*. Barcelona: Gustavo Gili, 1996.
 - 6 Apter, Emily, «On Translation in a Global Market», *Public Culture*, 13 zk, 2001, or.: 1-12.
 - 7 *Ibid.*, 5. or.
 - 8 Venuti, Lawrence, *The Scandals of Translation: Towards an Ethics of Difference*. Londres: Routledge, 1998. Emily Apterek uste du Lawrence Venuti bide-erakuslea dela globalizazio, kultur identitate eta eremu urriko hizkuntzekin zerikusia duten gaiak aztertzen dituzten itzulpengintza-ikerketen alorrean.
 - 9 MacCabe, Colin, *The Eloquence of the Vulgar. Language, Cinema and the Politics of Culture*. Londres: British Film Institute, 1999, or.: 9-11.
 - 10 Spivak, Gayatri Chakravorty, «Questioned on Translation: Adrift», *Public Culture*, 13. lib., 1 zk, 2001, or.: 13-22; hemen, 16.
 - 11 Cfr. → <http://translate.eipcp.net/transversal/0606/gutierrez-rodriguez/es> (2008ko maiatzaren 20an kontsultatua).
 - 12 Ikus film dokumental hauek: *La memoria interior* (María Ruido, 2002) and *La generación olvidada* (Ainhoa Montoya Arteabaro, 2005).
 - 13 Ildo horretan, esanguratsuk dira zenbait banku espainiarren mozkinak: Banco de Santander eta BBVA, zahazki, Argentinako finantza-krisian nahastu baitira, aipatutako hedapenera bidaltzen gaituzten kapital-irabaziak lortzeko.
 - 14 Gutiérrez Rodríguez, Encarnación «The "hidden side" of the new economy - On transnational migration, domestic work and unprecedented intimacy», *Frontiers: Journal of Women Studies*, 28 zk (3), or.: 60-83.
 - 15 Adierazpena Pragan (2001) eta Berlinen (2003) garatu zen, eta berrogei herrialdek izenpetu zuten. Boloniako Adierazpenaren xedea Europan «prestakuntzaren hirugarren sektorea harmonizatzea» da, elementu hauez baliatua: akreditazio-sistema konparatzailea, «Credit points» sistema, bi mailatan («Undergraduate» eta «Postgraduate») bereizitako bi faseko unibertsitate-hezkuntzaren eredu, etengabeko ebaluazioan oinarritutako unibertsitate-hezkuntzako programa eta sustapena Europan. Ereduaren xedea ikasle eta irakasleen mugikortasuna sustatzea da Europako Batasunaren barruan, baliokidetasun-irizpide bateratuen bitartez. Prozesu horretan, Europako unibertsitateak eraldatu egingo dira zerbitzu-zentroen eredu ingelesaren arabera. Eredu horren barruan
- ez da sartu unibertsitateen kudeaketa demokratiko eta parekiderik, hala nola Alemaniako Errepublikan Federalean, 1960ko hamarkadan, ikasleen mugimenduak neurri batean lortu zuena. Eredu hori, hain zuzen ere, eztabaidatu eta aldarrikatu zen, batez ere Pragako bileran.
- 16 Ongaro, Sara «De la reproduction productive à la production reproductive», *Multitudes*, 12 zk, 2003, or.: 145-154.
 - 17 Corsani, Antonella, «Une "chambre à soi" au sein de Multitudes», *ibid.*, or.: 11-16.
 - 18 Revel, Judith, «Devenir femme de la politique», *ibid.*, or.: 125-134.
 - 19 Querrien, Anne, «Femmes, multitudes, propriétés», *ibid.*, or.: 135-144.
 - 20 Deleuze, Gilles; Guattari, Félix, *Mil Mesetas*. Valencia: Pre-textos, 2008.
 - 21 Cfr. Sconvegno (Manuela Galetto, Chiara Lasala, Sveva Magaraggia, Chiara Martucci, Elisabetta Onari, Francesca Pozzi), «A snapshot of precariousness: voices, perspectives, dialogues», *Feminist Review*, 87 zk, 2007, or.: 104-112, hemen, 105. or.
 - 22 Cfr. Precarias a la deriva, *A la deriva por los circuitos de la precariedad femenina*. Madrid:Traficantes de sueños, 2004.
 - 23 Cfr. Luzenir Caixeta et alia, *Hogares, cuidados y fronteras/ Home; Care and Borders/Zuhause, Sorge und Grenzen*. Madrid: Cruz Roja, 2004.
 - 24 Cfr. Chandra Talpade Mohanty, «Aus westlicher Sicht: feministische Theorie und kooniale Diskurse», *Beiträge zur feministischen Theorie und Praxis*, 11 zk, 1988ko urtarria, or.: 149-162.
 - 25 Benjaminek hau idatzi du: «agerian jartzen da hor jakintzan ezin litekeela inongo objektibotasunik egon, ezta objektibotasun-asmorik ere [...] hemen egiaztatzen da itzulpena ez litzatekeela posible izango azken esentzia jatorrizkoaren antzekoa izateko nahia balitz». Benjamin, Walter, «La tarea del traductor», *Obra completa*. Madrid: Abada Editores, 2007.
 - 26 Derrida, Jacques, *Posiciones*. Valencia: Pre-textos, 1977, or.: 55.
 - 27 Spivak, Gayatri Chakravorty, "The Politics of Translation", Michèle Barrett, Anne Phillips (Eds.), *Destabilizing Theory. Contemporary Feminist Debates*. Stanford: Stanford University Press, 1992, or.: 177-200.
 - 28 Malo de Molina, Marta (ed.), *Nociones comunes. Experiencias y ensayos entre investigación y militancia*. Madrid: Traficantes de sueños, 2004.
 - 29 Marta Malo de Molina, «Nociones Comunes, parte 1: La encuesta y la coinvestigación obreras, autoconciencia», → <http://eipcp.net/transversal/0406/malo/es>